Osakidetza

BILBO-BASURTUKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
BILBAO-BASURTO

# Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratua

# 2024ko kudeaketa-memoria

2025eko apirila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Osakidetza

BILBO-BASURTUKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
BILBAO-BASURTO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Argitaratzailea: Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratua, Osakidetza
Azken eguneratzea: 2025eko apirila

BY NC SA

Lan hau Creative Commons lizentziapean argitaratu da,baldintza hauekin:

- Libreki heda daiteke
- Lan eratorriak baimenduta daude
- Jatorrizko jabetza aitortu behar da
- Eratorriek erabilera ez-komertzialetarako izan behar dute
- Eratorriak parteka daitezke, baina lizentzia bera erabilita

Informazio gehiago lortzeko eta lizentzia osoa ikusteko:
http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/deed.es

AENOR

# IRAUNKORTASUN TXOSTENA EGIAZTATZEA

AENOR
EGIAZTATUTAKO IRAUNKORTASUN TXOSTENA

VMS-2025/0010

AENORek Erakunde honen txostena egiaztatu du

## OSAKIDETZA - SERVICIO VASCO DE SALUD
OSI BILBAO BASURTO

GRI txostenak egiteko estandarren arabera egin da, eta erakundeak ekonomian, ingurumenean eta pertsonengan dituen inpaktu esanguratsuenen ikuspegi orokorra ematen du, giza eskubideei eragiten dieten inpaktuak barne, bai eta inpaktu horiek nola kudeatzen dituen ere.

| | |
|---|---|
| Titulu: | 2024ko Kudeaketa Memoria. |
| Txostenaren xede den aldia: | 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra. |
| jardueren kokapena: | AV MONTEVIDEO ETORBIDEA, 18. 48013 - BILBAO (BIZKAIA) |

Jaulkipen data: 2025-04-11

Rafael GARCÍA MEIRO
CEO

AENOR CONFIA S.A.U.
Génova, 6. 28004 Madrid. España
Tel. +34 91 432 60 00.-
www.aenor.com

# Aurkibidea


## Glosarioa 4

## Aurkibidea 4

## Sarrera 5

## Memoriaren profila 6

## Nortzuk garen 7

Erakundearen profila 7

Bilbo-Basurtuko ESIaren zerbitzu-zorroa. Programa-kontratua 13

2024 kudeaketa-plana: burututako ekintzarik garrantzitsuenak 16

Jarduera- eta egitura-adierazle nagusiak 19

Lortutako aitorpenak 28

## Materialtasuna eta estaldura 29

Estrategia, eragin eta prozesuen arteko korrelazioa 31

## Pertsonak 36

Etengabeko prestakuntza 36

Lan-osasuna 41

Aukera-berdintasuna 43

Onura sozialak eta lana eta familia-bizitza uztartzeko neurriak 44

Ordainketa-politika 45

## Bezeroak 46

Hobekuntzarekiko eta berrikuntzarekiko konpromisoa 46

Segurtasun klinikoa 46

I+G+Bren sustapena 47

Informazioaren segurtasuna eta konfidentzialtasuna 48

Pazientearen Segurtasuna 48

## Gizartea 50

Beste erakunde eta instituzioekiko harremanak 50

Ingurumen-dimentsioa 52

Eragin sozioekonomikoa 53

## Gobernu Ona 54

Erakundearen gobernu-egitura 54

Kudeaketa-arloa 55

Araudia aplikatzea eta helburuak lortzea 56

## Eranskinak 57


# Glosarioa

| | |
|---|---|
| **BAEE** | Bezeroen Arreta Eremua |
| **AAE** | Arreta Especializatua |
| **AAEMPS** | Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentzia |
| **BBB** | Bilbao Basurtu Berria |
| **K.K.** | Kanpo-kontsultak |
| **OZ** | Osasun-zentroa |
| **EUD** | Erizaintzako unibertsitate-diplomaduna |
| **LMAT** | Lehen mailako arretako taldea |
| **IK** | Ikerketa Klinikoak |
| **BAEE** | Barruko erizain egoiliarra |
| **FEM** | Medikuntzako fakultatibo espezialista |
| **GRI** | Global Reporting Initiative |
| **OEK** | Onarpen-eskaerak kudeatzea |
| **ETXEOSP** | Etxeko ospitalizazioa |
| **BUO** | Basurtuko Unibertsitate Ospitalea |
| **KEH** | Komunitatearen esku-hartzea |
| **LMAUB** | Lehen mailako arretako unitateburua |
| **KE-IZ** | Kanpo kontsultetako itxaron-zerrenda |
| **KIZ** | Kirurgiako itxaron-zerrenda |
| **BAME** | Barruko mediku egoiliarra |
| **ESI** | Erakunde Sanitario Integratua |
| **EAG** | Etengabeko Arretarako Gunea |
| **PKAO** | Programazio kirurgikoaren anestesia orokorra |
| **PKTA** | Programazio kirurgikoaren tokiko anestesia |
| **PKAL** | Programazio kirurgikoaren anestesia lokoerregionala |
| **IP** | Ikerketa proiektua |
| **PRAN** | Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan Nazionala |
| **AEOP** | Antibiotikoen erabilera optimizatzeko programa |
| **MOK** | Medikamentuen ondorio kaltegarria |
| **BBB** | Bihotz-birietako bizkorketa |
| **RNAO** | Ontarioko erizainen elkarte profesionala |
| **ESK** | Erantzukizun Sozial Korporatiboa |
| **PEAZ** | Paziente eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua |
| SEFAP | Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Elkartea |
| **EZOTL** | Erizaintzako zaintza osagarrietako teknikaria |
| **LKAO** | Larrialdi kirurgikoen anestesia orokorra |
| **LKTA** | Larrialdi kirurgikoen tokiko anestesia |
| **LKAL** | Larrialdi kirurgikoen anestesia lokoerregionala |
| **LMAUA** | Lehen mailako arretako unitateburua |
| **POU** | Prebentzioko Oinarrizko Unitatea |
| **KHA** | Kirurgia handi anbulatorioa |

# Sarrera

2-22

Bilbao Basurtu Berriaren proiektuan eta Basurtuko Unibertsitate Ospitalearen ondoan dagoen UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berriaren eraikuntzari loturiko ekintzen garapenarekin segitzeaz gainera, 2024an beste ekimen garrantzitsu batzuk ere gauzatu ditugu.

Arlo eta proiektu askotan lan egin dugun arren, hala zelan itxaron-zerrendaren optimizazioan, protokolo berrietan, lehen mailako eta ospitaleko arretaren eremuen arteko koordinazio-tresnen garapenean eta erabiltzaileen inkestaren sistematika berriro enfokatzean, ESIan dugun jarduera-bolumenarekin bat datozen emaitzak eskuratzeko, zehazki, berrikuntzarekin lotutako zenbait ekimen nabarmenduko ditugu, zeren etorkizuneko Bilbo-Basurtuko ESIaren oinarri izatea gura ditugun ardatzetariko bat den.

Ikerketaren esparruan, saiakuntza klinikoetako erizaina gauzatu dugu. Erizain mota hori funtsezkoa izango da ESIan, Bizkaiko eremuan handiena den honetan, gure saiakuntzen bolumenari erantzuteko. Ildo horretan, BB ESIko ikertzaile hasiberri eta emergenteentzako laguntza eta zerbitzuak handitu ditugu, eta haien eskura jarri ditugu metodologo bat, saiakuntza klinikoetako kontsultetan kokatutako study coordinator bat eta ingeniari biomediko bat, ikertzaileak liberatzea errazteaz gain.

Bestalde, Bilbo-Basurtuko ESIko Bottom Up proiektuetarako lehenengo deialdia planteatu dugu. Arrakasta handia izan du, 6 proiektu izatetik (gehienez 8) 13 proiektu hautagarri izatera igaro denez. Programa-kontratuan bere atala osatzen duten Bottom Up proiektuak ESIak berak gauzatzeko proposatzen dituen proiektuak dira, bere langileen ekimenetik sortzen direnak (horregatik deritze Bottom Up, "behetik gora"). Proiektuak bat datoz Osasun Sailak eta Osakidetza korporazioak lehenetsitako estrategiekin, eta helburu dute pazienteei eta erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzeko jardunbide egokiak eta ekimenak gauzatzea.

Bilbo-Basurtuko ESIak osasun-arloan erreferentziazko erakundea izaten segitu gura du, eta gure ahalegin guztiak horretara bideratuta daude..



Jesus Larrañaga Garitano
Zuzendari Gerentea



Tommie Hansen, CC BY 3.0, Wikimedia Commons

# Memoriaren profila

*2.3, 2.4, 2.5, 2.6, 2.14*

11. memoria hau 2024ko urtarrilaren eta abenduaren 31 arteko aldiari dagokio, eta Bilbo-Basurtuko ESIko jarduerari buruzko informazioa jasotzen du (aurrerantzean ESIa erabiliko da).

Estrategiari Laguntzeko eta Osasuneko Emaitzak Hobetzeko Unitateak egin du memoria, Zuzendaritza-taldeko kideen eta arlo zehatzetako beste arduradun batzuen laguntzarekin. Azkeneko zirriborroa bukatu ostean, zuzendari gerenteari eman zaio, ontzat eman dezan, eta, horren ostean, gure erakundetik kanpoko eta horretarako homologatutako ziurtatze-erakunde batek egiaztatu du.

Bilbo-Basurtuko ESIak, memoria honen bidez, albait erarik errazenean informatu nahi du Erakundearen eta haren jardueraren ahalik eta adierazle material gehienei buruz. Memoria egiteko, «funtsezko aukera» hautatu da, GRI estandarren arabera. Dokumentu honen eranskinean, korrespondentzia-taula dago, non adierazten baita dokumentuaren zein lekutan dagoen adierazle bakoitzari buruzko informazioa, GRI estandarren arabera.

Datuen berradierazpenak dagozkien adierazleetan daude azalduta. Edukia sinplifikatzearren, eta kontuan hartuta memoria hau urtero egiten dugula, eremu bakoitzeko ekintzak ez ezik, 2023ko eta 2024ko emaitzen arteko alderaketa ere azpimarratu dugu. Hori horrela, erabaki dugu uneko urteari eta aurreko urteari buruzko informazioa ematea, aurreko urteetako emaitzak aurreko memorietan daude eta.

Erakundearen kudeaketako eta reportingeko alderdi materialak identikatzerakoan, Bilbo-Basurtuko ESIak bere xedea eta ikuspegia era arrakastatsuan betetzeko funtsezkoak diren elementuak integratzen ditu, eta horretarako interes-talde garrantzitsuenen beharrak eta espektatibak hartzen ditu erreferentzia, batez ere Osasun Saila, Osakidetza, erabiltzaile eta profesionalenak.

"Estaldura eta materialtasuna" atalean, Bilbo-Basurtuko ESIko interes-taldeentzat garrantzi handienekoak diren alderdiak kontsultatu daitezke, zein, erakundearentzat estrategikoak izanik, bere materialtasun-arloak baitira, eta, beraz, arreta bereziaz lantzen baitira, bai kudeaketaren arloan, bai reportingean.

Elkarrizketa-prozesu horien emaitza nagusietariko batzuk txosten honetako hurrengo orrialdeetan kontsulta daitezke.

Irakurleari gonbita luzatzen diogu etorkizuneko beste edizio batzuetarako bere iritziak, iruzkinak eta hobetzeko iradokizunak bidaltzeko, helbide elektronikoaren honen bidez:

ESTRATEGIAETAOSASUNEMAITZAK.BILBOBASURTU@osakidetza.eus

# Nortzuk garen

*2.1, 2.6,2.12, 2.16, 2.23, 2.26, 2.29, 3.3*

## Erakundearen profila

Osakidetzako Bilbo-Basurtuko ESIa 2014ko urtarrilaren 31n sortu zen, zerbitzu-erakunde biak batzearen ondorioz, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea (BUO) eta Lehen Mailako Arretako Bilbo Eskualdea, eta Zuzenbide Pribatuko Ente Publiko – Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren 23 zerbitzu-erakundeetariko bat da.




Bilboko eta Alonsotegiko biztanleei zerbitzuak ematen dizkie, eta, horrez gain, erreferentziako ESIa da biztanle-eremu hauetan:

| Helduen erreferentziazko zerbitzuak eta tratamenduak | |
|---|---|
| **Zerbitzua** | **Erreferentzia-eremua** |
| Bihotzeko Kirurgia | Araba (%50) |
| Elektrofisiologia | Araba (kasu konplexuak) |
| Neurokirurgia: garuneko aneurisma kirurgia | EAE |
| Helduen psikiatria: gorrak | EAE |
| Helduen psikologia: gorrak | EAE |
| Sexo-transmisioko gaixotasunak | EAE |
| Esklerosi anizkoitza | EZZU |
| Obesitatearen kirurgia plastikoa | Araba eta Errioxa |
| Enteroskopia | EAE |
| Balbula perkutaneoak, aortikoak eta mitralak | Araba (%50) |
| Alergiak | Mena Harana |
| Hodietako kirurgia | Mena Harana |
| Kirurgia Orokorra | Mena Harana |
| Digestio-aparatua | Mena Harana |
| Ginekologia y tokologia | Mena Harana |
| Otorrinolaringologia | Mena Harana |
| Traumatologia | Mena Harana |
| Laborategia | Mena Harana |

| Erreferentziazko Umeen zerbitzuak eta tratamenduak | |
|---|---|
| **Zerbitzua** | **Erreferentzia-eremua** |
| Ume eta gazte gorrentzako psikiatria | EAE |
| Ume eta gazte gorrentzako psikologia | EAE |



Egoitza nagusia Basurtuko Unibertsitate Ospitalean du (Montevideo hiribidea 18), eta lantoki hauek ditu:

- Basurtuko Unibertsitate Ospitalea: 40 zerbitzu.
- Lehen mailako arretako 21 unitate (LMAU), 26 osasun-zentrotan banatuta. LMAU hauetako 5etan, ospitaleko arretako zenbait zerbitzu ere ematen dira.
- Urbi Basauriko espetxea.
- Etengabeko arretarako 3 gune (Deustuko, Errekaldeko eta Begoñako osasun-zentroak).
- Call center bat.

1 figurako ortoargazkiak Bilbo-Basurtuko ESIko lantokien kokalekua erakusten du.

*1. irudia - Bilbo-Basurtuko ESIaren zentroen ortoargazkia*






# ESIaren misioa, ikuspegia eta balioak, 2022-2025 aldi estrategikorako:

## Misioa

Osakidetzako erakunde sanitario publikoetako bat gara, Lehen Mailako Arretako eta Ospitaleko arretako zerbitzu integratuak eskaintzen dituena, osasuna sustatzeko eta zaintzeko, bai eta gaixotasunak prebenitzeko, hobetzeko eta sendatzeko ere. Gure identitatearen bereizgarri nagusiak dira arretaren kalitatea, ikerketarekiko eta irakaskuntzarekiko konpromisoa eta profesional bikainen prestakuntza.

## Ikuspegia

Nahi dugu herritarrengan sortzen duen konfiantzagatik aitortua izatea, eremu hauetan erreferente:

- Gure asistentziaren humanizazioa, segurtasuna eta pertsonalizazioa
- Emaitzak hobetzea, osasunari dagokionez.
- Gure zerbitzuen irisgarritasuna, arintasuna eta eraginkortasuna.
- Osasun komunitarioaren eta eremu soziosanitarioaren garapena

## Balioak

- efizientzia
- errespetua
- gizatasuna
- profesionaltasuna
- talde-lana
- enpatia
- zerbitzuaren kalitatea

ESIak lehen mailako arretari eta ospitaleko arretari lotutako jarduerak garatzen ditu. Jarduera horiek 2. irudian agertzen den prozesuen mapan islatzen dira, oro har. Prozesu bakoitzak nagusi bat du, eta nagusi horrek bere gain hartzen du prozesu bakoitzaren kudeaketaren erantzukizuna. 3. irudian (hurrengo orrialdea) agertzen dira Bilbo-Basurtuko ESIko interes-taldeak, horietako bakoitzaren beharrak eta itxaropenak eta 2024an erabilitako informazio-iturriak. Interes-taldeak identifikatzeko oinarria Erakundearen helburu estrategikoak dira eta orobat berak garatzeko eta ezartzeko behar diren ekintzak.

*2. irudia - ESIaren prozesuen-mapa*



*3. irudia: ESIaren interes-taldeak*

| Interes-taldea | Beharrizanak/Espektatibak | 2024an erabilitako informazio-iturriak | Arduraduna | Maiztasuna |
|---|---|---|---|---|
| Erabiltzaileak/Pazienteak | ▪ Lege-eskakizunak betetzea<br>▪ Segurtasuna<br>▪ Irisgarritasuna<br>▪ Eraginkortasuna<br>▪ Lanbide-gaitasuna<br>▪ Gogobetetasuna<br>▪ Tratua<br>▪ Azpiegitura egokiak<br>▪ Informazioa eta konfidentzialtasuna<br>▪ Parte-hartzea<br>▪ Mailen arteko koordinazioa<br>▪ Zerbitzu-zorroa zabaltzea/hobetzea | Bezeroen gogobetetasun-inkestak | Zuzendaritza-taldea eta talde teknikoa | Urtero |
| | | Bezeroekin kontaktu zuzena eta etengabea duten profesionalak (ez-adostasunak eta gorabeherak) | ESIko profesionalak | Jarraitua |
| | | Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak | ESIko liderrak – PEAZ / Osasun zentroetako bezeroarentzako arreta-eremuak | Jarraitua |
| Herritarrak | ▪ Osasuna hobetzea<br>▪ Konfiantza sortzea<br>▪ Berrikuntza<br>▪ Jasangarritasuna | Etengabeko harremanak | Profesional guztientzat | Jarraitua |
| | | Sare sozialak | Komunikazio Unitatea | Jarraitua |
| | | Komunikabideak | Komunikazio Unitatea/Zuzendaritza Taldea | Jarraitua |
| | | Materialtasun-inkesta | Zuzendaritza-taldea/Estrategian laguntzeko eta osasun-emaitzak hobetzeko unitatea | Jarraitua |
| Pertsonak/sindikatuak | ▪ Profesionalaren gogobetetasuna<br>▪ Enpleguaren egonkortasuna<br>▪ Euskara<br>▪ Kualifikazioa<br>▪ Lanbide-garapena<br>▪ Komunikazioa<br>▪ Laneko baldintzak eta giroa<br>▪ Ordainsaria<br>▪ Aitorpena<br>▪ Parte-hartzea<br>▪ Laneko Segurtasuna eta Osasuna<br>▪ Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa<br>▪ Prestakuntza eta informazioa | Liderren eta langileen arteko etengabeko harremana: Zuzendaritza Taldearen irisgarritasun erabatekoa | ESIko liderrak | Jarraitua |
| | | Iradokizunak egiteko sistema | Langileen Zuzendaritza | Jarraitua |
| | | Segurtasun eta Osasun Batzordea | Langileen Zuzendaritza | Hiru hilean behin |
| | | Zuzendaritza Taldearen eta langileen ordezkarien arteko bilerak | Zuzendaritza Taldea | Aldian behin |
| | | Batzordeak eta lantaldeak | ESIko liderrak | Aldian behin |
| | | Prestakuntza-beharren gogobetetasun-inkestak, Jakinsarea, prestakuntza-beharrak identifikatzeko inkestak | ESIko Prestakuntza Unitatea | Aldian behin |
| Gizarte-eragileak (GKEak, kaltetuen elkarteak, auzo-elkarteak, egoitzak etab.) | ▪ Elkarlana<br>▪ Parte-hartzea<br>▪ Komunikazioa<br>▪ Jarraitutasun asistentziala<br>▪ ESIaren zerbitzu-zorroa | Koordinazio-bilerak, proiektuak gauzatzeko eta akordioak ezartzeko | ESIko liderrak | Aldian behin |
| | | Elkarlaneko taldeetan parte hartzea | ESIko liderrak | Aldian behin |
| | | Proiektuak garatzeko eta akordiak ezartzeko koordinazio bilerak | Liderrak | Aldian behin |

| Interes-taldea | Beharrizanak/Espektatibak | 2024an erabilitako informazio-iturriak | Arduraduna | Maiztasuna |
|---|---|---|---|---|
| Instituzionalak (udalak eta foru-aldundia) | ▪ Koordinazio soziosanitarioa<br>▪ Lankidetza<br>▪ Osasunaren ikuspegi orokorra<br>▪ Hondakinen kudeaketa<br>▪ Eraginkortasun energetikoa (mugikortasuna) | Koordinazio-bilerak | ESIko liderrak | Aldian behin |
| | | Elkarlaneko taldeetan parte hartzea | ESIko liderrak | Aldian behin |
| | | Foroetan, biltzarretan, lantaldeetan eta abarretan parte hartzea | ESIko liderrak eta profesionalak | Aldian behin |
| Hornitzaileak | ▪ Koordinazioa<br>▪ Ekitatea<br>▪ Goiz-ordainketa<br>▪ Hornidurek beharrezko aurrerapenarekin behar dituzten eskaera jarraituak eta argiak<br>▪ Informazioa | Kontaktua hornitzaileekin Ate irekien politika | Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza, Zuzendaritza Taldea eta beste lider batzuk | Urtero |
| | | Lehiaketak eta esleipen publikoak | Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritza | Aldian behin |
| Osasun Saila eta haren mendeko organismoak (BIOEF, Osteba…) | ▪ Herritarren osasuna hobetzea<br>▪ Osasun-arloko desberdintasun sozialak murriztea<br>▪ Oreka finantzarioa<br>▪ Programa-kontratua betetzea<br>▪ Zerbitzu sanitarioaren estaldura<br>▪ Legeak betetzea<br>▪ Farmakoen kudeaketa<br>▪ Hondakinak kudeatzea | Osasun Sailaren dokumentu estrategikoak: Osasun Plana, Plan Estrategiko Soziosanitarioa, Programa-kontratua, lege-araudia, gidalerroak, programa berriak… | Zuzendaritza Taldea eta talde eta proiektuen arduradunak: | Aldian behin |
| | | Zuzendaritza Taldearen eta Osasun Sailaren arteko bilerak, estrategia zehatzak koordinatzeko | Zuzendaritza Taldea | Aldian behin |
| Osakidetza | ▪ Estrategiak eta helburuak betetzea<br>▪ Oreka finantzarioa<br>▪ Zerbitzu-zorroa eta kudeaketa-sistema berritzea eta hobetzea<br>▪ Efizientzia<br>▪ Kalitate zientifiko-teknikoa<br>▪ Markaren irudia<br>▪ Sistema sanitario prestigiotsua<br>▪ Kudeaketa kontrolatzeko bilerak | Entearen dokumentu estrategikoak Plan estrategikoa, kalitate-plana, jarraibideak, gidalerroak | Zuzendaritza Taldea | Jarraitua |
| | | Kudeaketa kontrolatzeko bilerak | Zuzendaritza Taldea | Lauhilekoa |
| | | ESIko liderrek eta profesionalek plan eta estrategia korporatiboetan parte-hartzea | ESIko liderrak | Aldian behin |
| Beste zerbitzu-erakunde batzuk | ▪ Koordinazioa<br>▪ Prozesu klinikoaren jarraitutasuna<br>▪ Beste zentro batzuetara egindako bideratzeak<br>▪ Ezagutzak eta jardunbide egokiak partekatzea | Zuzendaritza Taldeen bilerak | Zuzendaritza Taldea | Lauhilekoa |
| | | Lider eta profesionalen arteko etengabeko kontaktua | ESIko liderrak eta profesionalak | Jarraitua |
| | | Batzordeak eta lantaldeak | | Aldian behin |
| | | Urteko memoriak | Zuzendaritza Taldea | Urtero |

| Interes-taldea | Beharrizanak/Espektatibak | 2024an erabilitako informazio-iturriak | Arduraduna | Maiztasuna |
|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakundeak (IVAP, IHOBE, Emakunde, Osalan…) | ▪ Koordinazioa<br>▪ Lankidetza<br>▪ Komunikazioa | Akordio instituzionalak | ESIko liderrak eta proiektuen arduradunak | Ad-Hoc |
| | | Batzordeak eta lantaldeak | ESIko liderrak eta profesionalak | Aldian behin |
| | | Kontaktu zuzena | ESIko liderrak | Jarraitua |
| | | Foroetan, biltzarretan, lantaldeetan eta abarretan parte hartzea | ESIko liderrak eta profesionalak | Jarraitua |
| Zientzia-elkarteak eta ezagutza zabaltzeko elkarteak | ▪ Ezagutzak eta jardunbide egokiak partekatzea<br>▪ Elkarlana | Kontaktu zuzena | ESIko liderrak eta profesionalak | Jarraitua |
| | | Foroetan, biltzarretan, lantaldeetan eta abarretan parte hartzea | ESIko liderrak eta profesionalak | Jarraitua |
| Elkargo profesionalak (medikuak eta erizainak) | ▪ Elkargokideen eskubide eta interes profesionalak ordezkatzea eta defendatzea<br>▪ Lanbideen jarduna antolatzea | Zuzendaritza Taldearen eta Osasun Saileko/Osakidetzako arduradunen arteko bilerak | Zuzendaritza Taldea | Ad-hoc |
| Komunikabideak (irratia, telebista, prentsa idatzia…) | ▪ Lankidetza<br>▪ Koordinazioa<br>▪ Informazioaren eskuragarritasuna | Etengabeko harremanak | Komunikazio Unitatea/Zuzendaritza Taldea | Jarraitua |
| Enpresa-ehuna | ▪ Berrikuntza<br>▪ Elkarlana<br>▪ Esperientziak eta ezagutzak partekatzea | Kontaktu zuzena | ESIko liderrak | Ad- hoc |
| | | Foro eta biltzarretara joatea | ESIko liderrak | Ad- hoc |
| | | Proiektuen parte hartzea | ESIko liderrak | Ad- hoc |
| Kudeaketa-erakundeak eta aholkularitza-enpresak | ▪ Ziurtatu/ebaluatu daitezkeen kudeaketa-sistemen betekizunak betetzea<br>▪ Ezagutzak eta jardunbide egokiak partekatzea<br>▪ Helburu bateratuetarako koordinazioa | Foro eta biltzarretara joatea | ESIko liderrak | Aldian behin |
| | | Proiektuen parte hartzea | | |
| Unibertsitatea:<br>EHU<br>Deustu<br>Mondragon | ▪ Elkarlana<br>▪ Parte-hartzea<br>▪ Lan-munduan sartzeko prestakuntza | Bilerak | ESIko Zuzendaritza Taldeko liderrak | Aldian behin |
| | | Osasun-prestakuntza espezializatuaren irakaskuntza unitatea eta Erizaintzaren irakaskuntza eta ikerketa unitatea | | Aldian behin |
| Ikastetxeak<br>Irakaskuntza Ertaineko Institutuak<br>Ikastolak | ▪ Lankidetza<br>▪ Komunikazioa eta zabalkundea<br>▪ Lanbide sanitarioetarako erakarpena sortzea | DBHko 4.mailako eta Batxilergoko lehen mailako ikasleei zuzendutako Ate irekietako II jardunaldia | Estrategian laguntzeko eta osasun-emaitzak hobetzeko unitatea | Urtero |
| | | Gogobetetze-inkestak | | |

# Bilbo-Basurtuko ESIaren zerbitzu-zorroa. Programa-kontratua

3.3

Gure bezeroei ematen dizkiegun osasun-zerbitzuak Bilbo-Basurtuko ESIko zerbitzu-zorroan azaltzen dira. Zorro hori urtero berraztertu, berretsi eta, hala badagokio, hobetu egiten da, Programa-kontratuak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin sinatzearekin bat. Bertan zehazten da zer konpromiso hartzen duen gure ESIak bere arretapeko herritarrei zerbitzuak emateari buruz eta zerbitzu horiek izan beharreko kalitate-mailaz. Horren truke, behar duen finantzaketa emango dio Osasun Sailak. Ondoren, kalitate-adierazleen eskuliburu batean oinarritutako ebaluazio-prozesu baten bidez, aurretik itundutako konpromisoen betetze-maila aztertu eta egiaztatzen da, eta aurrekontua doitu, beharrezkoa izanez gero.




**Zer da PKa?**

Osasun-zerbitzuen **finantzatzaile** eta eroslearen (Osasun Saila) eta zerbitzu **hornitzailearen** (Osakidetzako erakundeak) arteko tresna juridikoa)




Konpromiso horiek guztiak ESIaren zerbitzu-zorroari lotuta daude, eta honela laburbil daiteke:

### Lehen Mailako Arretako Unitateek (LMAU) bere osasun-zentroen sarean eta etengabeko arretako gunetan (EAG) ematen dituzten osasun-zerbitzuak

- Gaixo akutu eta kronikoen asistentzia eta jarraipena, hala osasun-zentroan nola etxean.
- Osasunaren prebentzioa, sustapena eta heziketa.
- Arreta haurdunaldian, ama izateko prestaketan eta erditu ostean.
- Aho-hortzen osasuna.
- Premia sanitario urgente edo atzeraezinen arreta, hala zentroan zelan etxean.
- Alta osteko erizaintzako zainketen jarraitutasuna, zentroan eta etxean.

### Ospitaleko arretaren egituraren bidez ematen diren zerbitzu sanitarioak

- Hainbat espezialitate medikotako kanpo-kontsultak, bai Basurtuko Unibertsitate Ospitalean bai zentro anbulatorioen sarearen bidez.
- Ohiko ospitalizazioa hainbat espezialitate medikotan (679 ohe guztira).
- Ospitaleko Larrialdiak.
- Eguneko ospitalizazioa.
- Etxeko ospitalizazioa Bilbo eta Alonsotegi udalerrientzat.
- Prozedura diagnostiko eta terapeutikoak, bai medikoak bai kirurgikoak, hainbat zerbitzu orokor klinikotan.
- Erreferentziako zerbitzu klinikoak hainbat espezialitatetan, beste lurralde batzuetako helduak eta umeak artatzeko (gure erreferentziako herritarrez gainera), baita tratamenduei eta azterlanei dagokienean ere.
- Errehabilitazioko zerbitzuak.
- Osasun mentalaren arreta

### Bezeroen Arreta Eremuko Zerbitzuak

- Harrera eta informazioa
- Hitzordua ematea
- Iradokizun, kexa eta erreklamazioei arreta ematea.
- Beste izapide administratibo batzuk.

### Gizarte-laguntza

- Esku-hartze sozial prebentiboa eta zuzentzailea arrisku-egoeretan.
- Koordinazio soziosanitarioa.

### Gradu aurreko eta gradu osteko irakaskuntza hainbat espezialitate sanitariotan

- Erizaintzako Unibertsitate Eskola.
- Medikuntza eta Odontologiako Fakultatea.
- Farmazia Fakultatea.
- Lanbide heziketako eskolak.

### Profesionalen prestakuntza hainbat espezialitatetan:

- Medikuntza.
- Farmazia.
- Psikologia.
- Erizaintza.
- Biologia.

### Ikerkuntza kliniko-epidemiologikoa

## Lortutako emaitzak

2024. urteko PKaren II. eranskinak oso aldaketa esanguratsua jaso du aurreko urteetakoarekin alderatuta: urte naturala ebaluazio-aldi ezartzea, kasu honetan 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra. Lehenago, ebaluazio-aldi horrek xede den urteko 1. seihilekoa hartzen zuen, aurreko urteko 2. seihilekoarekin batera.

II. eranskinak ere beste aldaketa garrantzitsu batzuk sartu ditu egiturari dagokionez, 2023. urtearekin alderatuta. Izan ere, helburuak 6 gai-multzo handitan biltzen segitzen duten arren, bloke horiek ez dira jada 2023ko berak. 2024an 6 bloke horietako bakoitza arlo batzuetan banatzen da, ondoren ikus daitekeen bezala:

Arlo horiek, era berean, 2024ko PKaren II. Eranskina osatu duten 93 helburuak eta adierazleak egituratzen dituzte (2023an 76 helburu baino ez ziren izan).

Berrikuntza esanguratsu denez, 2024an, hauek nabarmenduko genituzke, planteatutako helburu berriei dagokienez:

- Suizidioaren prebentzioa
- Ospitaleko espezialitatetan arreta izateko lehen kontsultarako itxaronaldiak
- Zerbix-patologiako kontsultetarako itxaronaldiak
- Gure profesionalen hizkuntza-ohituren aldaketa bultzatzea
- Osasuna sustatzeko jarduerak bultzatzea
- Osasuneko esku-hartze komunitarioa bultzatzea

| 1 - Segurtasuna | 2 - Eraginkortasuna | 3 - Eskuragarritasuna |
| --- | --- | --- |
| ▪ Pazientearen segurtasunaren kudeaketa eta antolaketa-kultura<br>▪ Infekzioen prebentzioa eta kontrola<br>▪ Prozedura kirurgikoetako segurtasuna eta paziente kritikoarekin jardutea<br>▪ Ospitale-arretarekin lotutako jazoera kaltegarrien prebentzioa<br>▪ Medikamentuen erabilera kudeatzea<br>▪ Segurtasun neurriak osasun mentalean | ▪ Minarekin jardutea<br>▪ Gaixotasun kronikoak kontrolatu eta eurekin jardutea<br>▪ Ospitalizatutako pazienteak berriro ingresatzera eta jarraipena egitea<br>▪ Banakako arreta eta zaintza-planak<br>▪ Zainketa aringarriak eta bizitzaren amaierako arreta. | ▪ Kontsulta eta prozeduretarako itxaronaldia<br>▪ Zerbitzu espezifikoen eskuragarritasuna<br>▪ Eskuragarritasuna lehen mailako arretan |
| **4 - Efizientzia** | **5 - Pazientearen esperientzia** | **6 - Baliabideak** |
| ▪ Jarduera asistentziala eta klinikoa egokitzea<br>▪ Kostuen kudeaketa eta analisia | ▪ Parte-hartzea eta komunikazioa pazienteekin<br>▪ Euskara-plana<br>▪ Iruzkinak, iradokizunak eta erreklamazioak kudeatzea | ▪ Osasunaren sustapena eta prebentzioa<br>▪ Zainketen arreta eta koordinazioa<br>▪ Koordinazio soziosanitarioa<br>▪ Baliabideen kudeaketa |

Logikoa denez, II. Eranskina 1. mailako informazio-iturri bat da, eta ESIaren estrategia osoa modulatzen eta baldintzatzen du, neurri handi batean. 2022-25eko Plan Estrategikoarekin hasten da, eta urteko kudeaketa-planekin segitu, bai ESI osoari dagokionez, bai LMUen eta zerbitzuen planei dagokienez. Azken horiek urteko kudeaketa-akordioen bidez gauzatzen dira.

Begi-bistakoa da PKaren II. eranskinak herritarrei gure zerbitzuak emateko moduari buruz duen eragina eta agindua; izan ere, besteak beste, Bilbo-Basurtuko ESIak Osasun Sailetik lortuko duen finantzaketa-mailan eragiten du, "*ESIaren emaitzak zenbat eta hobeak izan, orduan eta finantziazio handiagoa lortzen da*".

Hurrengo taulan, 2024ko PKaren II. eranskineko 6 bloke tematiko handietan lortutako balioa azaltzen da. Osasun Sailak emandako behin-behineko emaitzak dira, eta azkenean Sailak egindako behin betiko txostenean jasotzen diren azken emaitzekin alderatuta % +1eko aldakuntza izateko aukera dago. Emaitza horiek Bilbo-Basurtuko ESIaren 2025eko memorian jakinaraziko dira. Ez dugu adierazten 2024-2023 emaitzen konparazioa gaikako blokeen arabera; izan ere, 2024koak (1. zutabean adierazitakoak) eta 2023koak desberdinak dira.

Hurrengo taulan azaltzen den puntuazioari, 2024 programa-kontratuaren II. eranskinean lortzen den guztizko puntuazioa lortzearren, gehitu beharko zaio (gehienez 15 puntu gehiago) Bilbo-Basurtuko ESIak 2024 programa-kontratuaren II. eranskin honen esparruan ebaluatzeko aurkeztutako 8 Bottom Up proiektuen ebaluazio-txostenean ematen den puntuazioa. Une honetan ez daukagu ebaluazio-txosten hori, eta, beraz, 2025eko memorian islatuko da puntuazioa.

| Ebaluatutako blokeak | BB ESIak lortutako behin-behineko puntuazioa 2024 (100 oinarrira eramana) |
|---|---|
| SEGURTASUNA | 58 |
| ERAGINKORTASUNA | 42 |
| ESKURAGARRITASUNA | 78 |
| EFIZIENTZIA | 59 |
| PAZIENTEAREN ESPERIENTZIA | 65 |
| BALIABIDEAK | 73 |
| **PKko II. eranskineko adierazleen eskuliburuaren arabera lortutako puntuak** | **60** |

Logikoki, hobetzeko arlo batzuk daude 2024ko ebaluazioaren ostean, eta Bilbo-Basurtuko ESIa dagoeneko horietan esku hartzen dabil. Taula honetan, horretarako estrategia garrantzitsuenetako batzuk ageri dira:

| PKaren II. eranskinaren helburua | 2024an lortutako puntuen % | Proposatutako hobekuntza-estrategiak 2025ean hedatzeko |
|---|---|---|
| Identifikazio-besokoa behar bezala ipinita daukaten ospitalizatutako pazienteen % 100 | %0 | Ospitale-zerbitzuekin sinatutako 2025eko Kudeaketa Akordio guztietan landu beharreko lehentasunezko estrategia izanik sartzea |
| Hurrengo 30 egunetan, alta eman ondoren berriro ospitalizatutakoen ehunekoa gutxitzea | %0 | Ospitale-zerbitzuekin sinatutako 2025eko Kudeaketa Akordio guztietan landu beharreko lehentasunezko estrategia izanik sartzea |
| Historia klinikoan banakako arreta-plana egitea, paziente pluripatologikoentzako kalitate-irizpide bikainekin | %25 | LMAUekin sinatutako 2025eko Kudeaketa Akordio guztietan landu beharreko lehentasunezko estrategia izanik sartzea |
| Paziente pluripatologikoak barne-medikuntza inklusiboa ez diren espezialitate medikoetara bideratzea (aurrez aurrekoak eta ez-presentzialak | %0 | LMAUekin sinatutako 2025eko Kudeaketa Akordio guztietan landu beharreko lehentasunezko estrategia izanik sartzea (asistentzia-bide integratua berraktibatzea) |
| Paziente pluripatologikoen % 60k gutxienez Historia Klinikoan erregistratutako Arreta Plan Indibidualizatua izatea | %0 | LMAUekin sinatutako 2025eko Kudeaketa Akordio guztietan landu beharreko lehentasunezko estrategia izanik sartzea (asistentzia-bide integratua berraktibatzea) |
| Zainketa aringarriak behar dituzten pazienteak historia klinikoan gutxienez % 50 identifikatzea eta erregistratzea | %0 | LMAUekin eta ospitale-zerbitzuekin sinatutako 2025eko Kudeaketa Akordio guztietan lan egiteko lehentasunezko estrategia izanik sartzea |
| Kalitate farmazeutikoaren preskripzioa. Farmako antikolinergikoak gutxitzea | %0 | LMAUekin sinatutako 2025eko Kudeaketa Akordio guztietan landu beharreko lehentasunezko estrategia izanik sartzea |
| Kalitate farmazeutikoaren preskripzioa. Antibiotiko makrolidoen erabilera gutxitzea | %0 | LMAUekin sinatutako 2025eko Kudeaketa Akordio guztietan lan egiteko lehentasunezko estrategia izanik sartzea (faringoamigdalitis patologian) |
| Konplikazioen ondorioz, sarbide baskularreko gailuen erretiroa % 15etik behera jaistea (ospitalizatutako pazienteen kasuan) | %0 | Ospitale-zerbitzuekin sinatutako 2025eko Kudeaketa Akordio guztietan landu beharreko lehentasunezko estrategia izanik sartzea |

Ikus daitekeenez, kudeaketa-akordioak (ESIko Zuzendaritzak ospitale-zerbitzu bakoitzarekin eta LMAU bakoitzarekin sinatuak) funtsezko tresnak dira oraindik ere hobekuntza-prozesu horretan; izan ere, horien bidez ezartzen dira dagozkion helburuak, eta LMAUk edo zerbitzuak konpromisoa hartzen du horiek lortzeko ekintzak garatzeko (adibidez, saio klinikoak, sentsibilizazio-saioak, emaitzen balorazio bateratua eta aldizkakoa, protokoloen eguneratzea eta hedapena, etab.).

Bottom Up proiektuak ere kontrastatu ziren 2024an, gure programa-kontratuaren II. eranskinaren esparruan. Laguntza-ekimen berritzaileak edo hobetzeko ekimenak dira, ESIetako profesionalek proposatuta sortzen direnak. Aipatu behar da 2024an Osasun Sailak, aurreko urteetan ez bezala, ez diola Bilbo-Basurtuko ESIari Top Down proiekturik planteatu (Osasun Sailak berak ESIari proiektua ezartzeko eta garatzeko lehentasuna eman eta proposatzen dituenak).

2024an, mugarritzat azpimarratu behar da Bilbo-Basurtuko ESIak oso bultzada estrategiko garrantzitsua eman ziola Bottom Up proiektuak ezartzeari, eta, horren ondorioz, 14 hobekuntza-proposamen aurkeztu zirela, eta horietatik 8 (Osasun Sailak administratutako gehieneko kopurua) 2024ko programa-kontratuan sartzeko aukeratu zirela. Bultzada hori gure ESIak egindako barne-deialdi batean gauzatu zen (2023ko urrian), eta profesional guztiak 2024rako hobekuntza-ekimenak eta -proiektuak aurkeztera animatu zituen. Horretarako, Bilbo-Basurtuko ESIak laguntza-araubide bat ipini zuen (lehenengoz).

Jarraian, Bilbo-Basurtuko ESIak 2024ko PKaren II. eranskinaren esparruan aurkeztutako 8 Bottom Up proiektuak adierazten dira. Helburuen betetze-mailari buruzko ebaluazioak adierazleen eskuliburuan jasotako helburuetan lortutako puntuazioaz gain 15 puntu gehigarri ere izan ditzake, eta horien behin-behineko emaitzak lehen aipatu dira. Hala ere, esan bezala, oraindik ez dugu 8 proiektu horien ebaluazio-txostenik, eta, beraz, informazio hori 2025eko memorian helaraziko da.

## Bottom Up proiektuak

- Sexu-transmisioko infekzioak goiz detektatzeko programa Bilbo-Basurtuko ESIko LMAko emaginen kontsultetan
- Segurtasunez informatzea: diziplina anitzeko taldearen artean informazioa transmititzeko estandarizazioa, I-SBAR tresnaren bidez
- Taldeko osasun-hezkuntza lehen mailako arretan aurrekari kardiobaskularrak dituzten pazienteentzat
- Transmisioan oinarritutako arreta-neurrien (TOAN ) betetze-maila balioesteko eta ospitaleko isolamenduen kalitatea neurtzeko tresna bat balioestea
- Umeen artean ukipen-lenteen erabilera egokia eta segurua sustatzea, 6 eta 14 urte bitarteko umeengan miopiaren progresioa geldiarazteko estrategiatzat ezarri berri denez gero
- Minaren monitorizazioa ospitalizazio kirurgikoko unitateetan
- Tumore solidoa duten nerabe eta heldu gazteak tratatzeko berariazko laguntza-unitatea sortzea
- Pediatriako ospitalizazioko asistentziaren humanizazioa bultzatzea

Bilbo-Basurtuko ESIak egindako balorazioa, oro har, ona da, eta 2024an gauzatu dira, sustatzaileen eta taldeen gogobetetze handiarekin. Hala ere, 3 proiektutan aurreikusitako ekintzen kronograma atzeratu egin da, arrazoi batzuk direla medio, eta, beraz, 2025ean ere garatzen segituko dute.

# 2024 kudeaketa-plana: burututako ekintzarik garrantzitsuenak

*2.25, 3.3*

Laburbilduta, 2024 amaitu edo hasi diren estrategia nagusietako batzuk aurkeztuko dira, 2022-2025 Plan Estrategikoaren 7 erronken arabera egituratuta. ESIko zuzendaritza-taldeak onartu ditu estrategiak, eta memorian azaltzen diren beste estrategia batzuekin osatzen dira.

## 1. Erronka. Pazientearentzako eta pazientearekiko asistentzia

- Patologia anitzeko pazienteen, BGBK, diabetes mellitus eta bihotz-gutxiegitasuna dutenen asistentzia-bideak eguneratzea.
- Paziente kronikoen arreta hobetzea.
- ESIan Humanizazio Plana diseinatu eta gauzatzen joatea.
- Profesionalen sentsibilizazioa, prestakuntza eta integrazioa.
- Osakidetzako pazientearen segurtasun-plana hedatzen segitzea
- Erizaintzako zainketen jardunbide egokiak segurtasunaren arloan ezartzea (BPSO).
- ZERO infekzioko proiektuak bultzatzea.
- Pazientea bere zaintzan inplikatzea.
- Gaixotasunen araberako arreta-planak garatzea.
- Profesionalen arteko komunikazio-zirkuituak indartzea, paziente onkologikoei arreta koordinatua emateko.

- LMAk osasun mentalari ekitean duen protagonismoa indartuko duten estrategiak bultzatzea.
- Prozesu diagnostiko eta terapeutikoen teknifikazioa bultzatzea: genetika, irudiak gidatutako teknikak. Genetika, irudiak gidatutako teknikak.

## 2. erronka. komunitate-osasuna

- Pediatriako diziplina anitzeko arreta-taldea indartzea.
- Lehen mailako arretako taldeetan (LMAT) farmazialari-jarduera sustatzea (medikazioaren bateragarritasuna, medikazioa berrikustea…).
- Tabakoa erretzeari uzteko programak bultzatzea.
- Jarduera fisikoa sustatzeko programak bultzatzea (kirola agindu).
- Aho-hortzen osasunaren estrategia garatzea, zein umeetan, zein beste kolektibo batzuetan.
- Amagandiko edoskitzea sustatzeko estrategiak bultzatzea.
- Osasuna sustatzeko beste programa batzuk bultzatzea.
- Umeen zein helduen txertaketa-estaldurak hobetzeko estrategiak.
- Estrategiak arrisku kardiobaskularreko faktoreak dituzten biztanleen bizimodu osasungarriak bultzatzeko, bai banaka, bai taldeka.
- Euskadiko Umeen Osasun Programa sustatzea
- Gaixotasuna prebenitzeko beste estrategia batzuk bultzatzea.
- Inguruko eragileen artean adostutako asistentzia-zirkuitu soziosanitarioak bultzatzea, Erakundearteko Batzorde Soziosanitarioarekin koordinatuta.
- Genero-etena minimizatzeko estrategiak bultzatzea.
- Jausiak prebenitzeko estrategiak bultzatzea.
- Erkidegoak berak identifikatutako premietan oinarrituriko esku-hartze komunitarioko (EK) programak bultzatzea, eta bat etorriz Osasun Sailak osasunari komunitatean heltzeko daukan gidarekin.

## 3. erronka. Arretaren efizientzia eta eraginkortasuna

- Kanpoko kontsultetako itxaronzerrendak hobetzea.
- Proba osagarriez baliatzeko erraztasuna hobetzeko plana.
- Presako arreta hobetzeko estrategia definitzea eta garatzea.
- Erizaintzako kanpo-kontsulta monografikoak bultzatzea eta garatzea.
- Zerbitzu-zorroa zabaltzea edo herritarren laguntza-premietara egokitzea.
- Ospitale-eremuan erizaintzaren medikamentu-egokiezpena eta osasun-materialarena ezartzea.
- Preskripzio elektronikoa eta segurua garatzea.

## 4. erronka. pertsona inplikatuak eta gai direnak

- Estrategiak bultzatzea profesionalek bere ezagutza eta trebetasunak partekatzea ahalbidetzeko.
- Zeharkako ikaskuntza-eredu bat garatzea, ezagutza indibiduala, kolektiboa eta antolakuntzakoa barne hartzen dituena.
- ESIaren prestakuntzaz baliatzeko bidea bultzatzea.
- Prestakuntza- eta komunikazio-estrategia egokiak bultzatzea, lider eta profesionalei begira, informazio- eta kudeaketa-sistema integratuak asistentzia/aurrekontu/giza baliabideen arloetan erabiltzeari dagokionez.
- Hobetzea osasun-emaitzetan eta balio-sorreran oinarritutako metodologiei dagokienez profesionalek duten ezagutza eta atxikimendua.
- Giza baliabideen egitura erakundearen egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzea.
- Sailen arteko koordinazioa hobetzea, prebentzio-planaren jarraipena eta kontrola egiteko.
- Unitate eta Zerbitzuetako arrisku psikosozialen kudeaketan aurrera egitea.
- Bilbo-Basurtuko ESIko profesionalentzako laguntza psiko-emozionaleko programak ezartzea.
- Analisi epidemiologikoak egitea osasun-zaintzaren emaitzei buruz eta arriskuen prebentzioaren beste alderdi batzuei buruz.
- Enpresa osasungarriaren eredua bultzatzea.
- ESIaren talde mailako aintzatespen-/pizgarri-plana diseinatzea.
- Pertsonen parte-hartzea sustatzea.
- Osakidetzako Berdintasun Planaren dimentsioak garatzea.

## 5. erronka. Ingurunearekin eta modernizazioarekin konprometituak

- Obren eta berrikuntzen urteko plana egitea.
- Bilbo-Basurtuko ESIen Bide Segurtasuneko eta Sarbideak Kontrolatzeko Plana eguneratzea.
- Ekipamenduen eta instalazioen urteko plana egitea.
- BBB proiektuaren komunikazio-plana egitea.

- Etxeko terapien digitalizazioa bultzatzea.
- EHU/UPVrekin aliantza estrategikoak ezartzea.
- Erakunde, elkarte eta bestelako erakundeekiko lankidetza bultzatzea, nahiz ESIaren hobekuntza estrategikorako, nahiz hirugarren sektorearekin hitzarmenak eta lankidetzak lortzeko, herritarren osasuna eta ongizatea hobetzearren, bereziki arriskuan dauden kolektiboei dagokienez.
- Gure ESIaren ingurumen-politika indartzea.
- Erosketa berdea bultzatzea, ingurumen-irizpideak sartuz materialak, ekipamenduak, instalazioak… erostean, edo zerbitzuak kontratatzean, efizientzia energetiko handiagoaren alde.
- Ingurumen-energiazko eraldaketa bultzatzea.

## 6. erronka. I+G+b eta irakaskuntza etorkizuna bermatzeko

- Ikerketa-jarduerarako azpiegituren sorrera bultzatzea.
- Azterketa klinikoen erakarpena bultzatzea.
- Oinarrizko ikerketan eta ikerketa klinikoan espezifikoki gaitzea.
- Gure profesionalen dibulgazio zientifikoa bultzatzea.
- Zenbait proiektu adimen artifiziala eta Big data erabiliz garatzea.
- Sormena eta berrikuntza sustatzea metodologien, tresnen eta teknologia aurreratuen bidez.
- Lehen mailako arretan ikerketa-jarduera erraztea.
- Nursing Research Challenge kudeaketako berrikuntza-proiektua hedatzea.
- Zaintzei buruzko ikerketa-ildoak garatzea.
- Bilbo-Basurtuko ESIak irakaskuntza-erakunde denez duen proiekzioa bultzatzea. Erizaintzako gradu aurreko eta osteko irakaskuntza.

## 7. erronka. gobernu ona, balio bereizgarri

- CIRUSen (programazio kirurgikoaren) garapena eta hedapena bultzatzea
- Zerbitzu eta unitateetan kudeaketa-akordioak hedatzea.
- Erabiltzaileen ahotsa prozesuen eta zerbitzuen diseinuan eta hobekuntzan sartzea eta horretarako sistematizatzea.
- Bitarteko burutzek kudeaketa-planen diseinuan eta ebaluazioan duten protagonismoa sustatzea, bai eta Erakundean funtsezkoak diren jardueren eta emaitzen zabalkundean ere.
- Diziplina anitzeko lantaldeak bultzatzea, aholkularitza emateko eta prozesu asistentzialak eta ez-asistentzialak hobetzeko neurriak planteatzeko.
- Bilbo-Basurtuko ESIaren kode etikoa profesional eta hornitzaileen artean ezartzen eta hedatzen segitzea.
- Zerbitzuen kartan konpromiso berriak sartzen segitzea.
- Ate irekien jardunaldiak bultzatzea, herritarrei irekitako jarduerak (ospitalearen eguna: barne-prozesuak ezagutzea).
- Erakunde hornitzaileak ebaluatzeko eta jarraipena egiteko mekanismoak definitzea eta ezartzea, adierazleen sistematika planifikaturik eta helburuak adosturik.
- Mantentze-lanen arloko informazio-sistema korporatibo berria ezartzea eta hedatzea.
- Bultzada ematea biltegien kudeaketa automatizatuari, eta etengabeko inbentariokoak gehitzea (SAP R3).
- Aurrera egitea kontratazio txikien arloko hobekuntza-estrategiei dagokienez: intzidentzia txikiagoa fiskalizazioan, erosketa-baldintza hobeak, etab. …
- Eredu ziurtagarriak eta ebaluagarriak erabiltzen segitzea, bai gaur egun erabiltzen direnak, baita berriak direnak ere (Euskalit, ISO, SG 21, ISO 45001:2018…).
- Kudeaketa eta emaitzak hobetzeko metodologia berritzaileen erabilera erraztea, hala nola LEAN, AMFE, Clásica 7 erreminta, 5S… LEAN, AMFE, 7 erreminta klasikoa, 5S…
- Kudeaketan egindako lanagatik aitortuta dauden zerbitzu eta LMAUetan txandakatzeak sustatzea, asistentzia-/kudeaketa-eredu eraginkorrak integratzeko.
- Praktika eta ezagutza egokiak kudeatzeko sistematikak eta tresnak ezartzea, esperientzia desberdinak ESI osoaren eskura jarri eta partekatu ahal izateko, esperientziok barruko nahiz kanpokoak izan.

# Jarduera- eta egitura-adierazle nagusiak

Jarraian, zenbait magnitude eta emaitza modu orokorrean azalduko dira, Bilbo-Basurtuko ESIaren irudia emateko:

*2.6, 2.7, 2.8, 2.25, 2.26,, 201-1, 201-4, 3.3*

### *Ekonomia eta Finantza arloa*

| Emaitza-kontua | 2024 | 2023 | Δ 24/23 |
|---|---|---|---|
| Diru-sarrerak | 562.184.696 | 530.166.928 | 32.017.768 |
| Jatorri publikoko dirulaguntzak eta laguntzak | 329.423 | 265.120 | 64.303 |
| Sektore pribatutik heldutako ikerkuntza eta prestakuntzarako laguntzak | 0 | 0 | 0 |
| Gastuak | 562.184.696 | 530.166.928 | 32.017.768 |
| Hornitzaileak (negozio bolumena) (1) | 184.636.606 | 172.086.771 | 12.549.836 |
| Soldatak (2) | 293.446.383 | 280.996.113 | 12.450.270 |
| Prestazio sozialak (3) | 6.454.932 | 6.433.735 | 21.197 |
| Zergak (gizarte-aseguruak) | 81.901.130 | 79.336.137 | 2.564.992 |
| **Galera (-) / irabazia (+)** | **0** | 0 | |

*(1) Urteko fakturak.*

*(2) Bere baitan hartzen ditu soldatak, ordain-sariak, kalte-ordainak eta irakaskuntza.*

*(3) Bera baitan hartzen ditu gizarte-ekintza, pentsiodunak, EPSV ,Itzarri eta beste kontzeptu batzuk.*

## Jarduera asistentzialaren datuak

### *Asistentzia arloa (2023-2024)*




***Informazio-iturria**: Aginte-mahai korporatiboa.*

***Oheak**: Benetako oheen urteko batez besteko kopurua. Ez dira zerbitzu bakoitzari esleitutako ohe teorikoak.*

***Okupazio-indizea**: Ospitaleko batez besteko okupazioa da, benetako ohe kopurua kontuan hartuta.*

***Interbentzioak**: Adierazle honek hauek hartzen ditu kontuan:*

- *Kirurgia handi programatuko interbentzioak (PAO + PAL + PALE)*
